

ERABAKIA, 2016KO OTSAILAREN 8KOA, GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIAKO KONTSEILU ERREKTOREARENA, GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIAREN 2016RAKO DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA ONARTZEN DUENA.

1. Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen diru-laguntzen lege-araubideak ezartzen duenez, diru-laguntzen ezarpena proposatzen duten erakundeek edo Administrazio publikoek, aldez aurretik, diru-laguntzen plan estrategiko bat eduki beharko dute.
2. Zentzu horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak zehaztu ditu, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren 01/15 Zirkularraren bitartez, plan hori egiteko lanei ekiteko jarraibide nagusiak, eta, agerian geratu denez, X. Legegintzaldian zenbait Gobernu Plan daude indarrean, Administrazio honen eskumeneko Gobernu Ekintzaren garrantzizko arloak egituratzen ari direnak. Zehazki, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak Garapenerako Lankidetzaren III. Gida Plana du indarrean, 2015eko otsailaren 10eko Gobernu Kontseiluaren erabakiaren bitartez onartua, eta, plan horren bitartez, 2014-2017 aldiari dagozkion helburuak, ekintzak eta jarraipen- eta ebaluazio-adierazleak antolatuta dira.
3. Bestetik, abenduaren 23ko 7/2015 Legea onartzearekin batera EA Eren 2016rako aurrekontu orokorrak onartu dira, eta, Lege horren arabera, hainbat baliabide eskuragarri daude hainbat ekimeni heltzeko aproposak, diru-laguntzen plan horiek aurrera eramatea ahalbidetzen duen diru-laguntzen teknikaren bitartez.
4. Horiek guztiak kontuan hartuta, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Zuzendaritzak Erakundearen Diru-laguntzen Plan Estrategikorako proposamen bat egin du, diru-laguntzen aurreikuspen horiek Garapenerako Lankidetzaren III. Gida Plan horrekin uztartzeko, eta azken plan horretan zehaztu dira aplikazioko denbora-eremu osoan, 2016ko ekitaldia barne, bete beharreko helburuak. Kontseilu Errektoreak Plan-proposamen hori aztertu du 2016ko otsailaren 8an egindako bilkuran.
5. Diru-laguntzen Plan Estrategiko hori onartzeko eskumena Kontseilu Errektoreari dagokio, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortzen eta arautzen duen ekainaren 19ko 5/2008 Legearen 10.a) artikuluan eta martxoaren 23ko 95/2010 Dekretuak onartutako Antolamendu eta Funtzionamendu Erregelamenduaren 10.a) artikuluan aurreikusitakoa betez.

Horregatik guztiagatik, Kontseilu Errektore honek honako erabaki hau hartu du, gehiengoz,

ERABAKIA

Lehena.- Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren 2016rako Diru-laguntzen Plan Estrategikoa onartzea, eta erabaki honi Eranskin gisa eranstea.

Bigarrena.- Ebazpen honi publizitatea emateko agintzea, bidezko baliabide ofizialen bitartez, eta, betiere, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren webgunean txertatuz: www.elankidetza.euskadi.eus.

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 27.5 artikuluko bigarren paragrafoan aurreikusitakoa betez adierazi nahi dugu erabaki hau onartu zeneko bilkuraren akta onartu egingo dela Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Kontseilu Errektorearen hurrengo bilkuran.

OE María Angeles Elorza Zubiría
Kontseilu Errektoreko presidentea
Kanpo Harremanetarako Idazkaritza
Nagusia

Paul Ortega Etcheverry
Garapenerako Lankidetzaren Euskal
Agentziaren Zuzendaritza Kontseilu
Errektoreko idazkaria

ERANSKINA
GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIAREN 2016RAKO DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA
(2014-2017 ALDIRAKO GARAPENERAKO LANKIDETZAREN III. GIDA PLANARI dagokionez, plan hori garatuz eta plan horren osagarri)
2016ko DIRU-LAGUNTZEN EKINTZAK

FINANTZIAZIO ITURRIA: Euskal Autonomia Erkidegoaren 2016ko ekitaldirako aurrekontu orokorrak, abenduaren 23ko 9/20015 Legeak onartuak (248. EHAA, 2016ko abenduaren 30ekoa). **GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIAREN USTIAPEN AURREKONTUA**

2016KO GARAPENERAKO LANKIDETZARAKO LAGUNTZAK

(USTIAPENARI eta KAPITALEKO diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak)

6521 ETA 6531 gastu-kontuak: **2016:** 9.530.702,00 € (Etorkizuneko konpromisoak **2017:** 15.456.201,00 €; **2018:** 10.518.000 €) **Guztira: 35.504.903,00 €**

Laguntza-ildoak: 2016erako aurreikuspena (aurreko ekitaldietan hartutako konpromisoak alde batera utzita)

1.1 Lankidetzaren tresnen deialdia. 5

2.1.1 Ekintza humanitarioko laguntzen deialdia. 1

2.1.1.1 Ildo ireki eta iraunkorraren esparruan, emandako larrialdiko eta ekintza humanitarioko laguntzen kopurua. 5

2.1.1.2. Ekintza humanitarioko esparru-estrategien esparruan emandako larrialdiko eta ekintza humanitarioko laguntzen kopurua. 3

2.1.2 Garapenerako lankidetzaren proiektuetarako laguntzen deialdia. 1

2.1.2 Garapenerako lankidetzaren proiektuetarako emandako laguntzen deialdia. 90

2.1.3 Euskal lankideentzako laguntzen deialdia. 1

2.1.3.1 Euskal lankideei emandako laguntzen kopurua. 8

2.1.4 Nazio Batuen Sistemaren Nazioarteko Erakundeentzako eta haiei lotutako pertsona juridikoentzako laguntzen deialdia, lankide boluntarioei beka emateko. 1

2.1.6.1 Lankide boluntarioei beka emateko emandako laguntzen kopurua. 15

2.1.5 Garapenerako Lankidetzaren Ignacio Ellacuría Sariaren deialdia. 1

2.1.5.1. Saritutako erakunde eta/edo pertsona fisikoen kopurua. 1

1.2 Hitzarmen bidez diru lagundutako zuzeneko lankidetzarako ekimenak

1.2.1. Sinatu beharreko hitzarmen kopurua. 3

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN III. GIDA PLANA 2014-2017 (VI.3) I	
2016AN BANA DAITEZKEEN FUNTSAK: 35.504.903,00 €	
TRESNAK: bakoitzerako urtean bana daitezkeen funtsen ehunekoa eta aurreikus daitezkeen kostuak	
<p>1. HERRIALDE KIDEEKIKO LANKIDETZA</p>	<p>GARAPENERAKO LANKIDETZA Garapenerako lankidetzarako proiektuak (PRO) (% 40-55):</p> <ul style="list-style-type: none"> a) Garapen-lankidetzarako irabazi-asmorik gabeko erakundeek egin beharreko garapen-lankidetzarako proiektuetarako laguntzak. (PRO/K1) b) Aurreko idatz-zatian barne hartuta ez dauden irabazi-asmorik gabeko erakundeek egin beharreko produkzio-garapeneko eta prestakuntza eta laguntza teknikoko proiektuetarako laguntzak. (PRO/K2) <p>EKINTZA HUMANITARIOA (% 8-12)</p> <ul style="list-style-type: none"> - Finantziazio-ildo iraunkorrari (PRE) aurkeztutako larrialdi-laguntzak eta ekintza humanitarioak. - Eremu humanitarioan espezializatutako erakundeek aurkeztutako ekintza humanitarioko esparru-estrategietarako diru-laguntzak (EHE).
<p>2. GIZARTE ERALDAKETARAKO EKINTZAK/PROZESUAK</p>	<p>ERAGIN POLITIKOA, BERRIKUNTZA ETA SORMEN METODOLOGIKOA; IKERKETA; PRESTAKUNTZA; KOMUNIKAZIOA, TRUKEA ETA IKASKUNTZA KOLEKTIBOA</p> <ul style="list-style-type: none"> - Irabazi-asmorik gabeko erakundeek egin beharreko garapen-hezkuntzako proiektuetarako laguntzak. (PRO /K3): % 8-12
<p>3. AGENTEAK SENDOTZEA</p>	<p>LANKIDEAK</p> <ul style="list-style-type: none"> - Euskal lankideentzako laguntzak (KOP): % 0,3-1 <p>NAZIO BATUEN PRESTAKUNTZA BEKAK</p> <ul style="list-style-type: none"> - Nazio Batuen sistemaren Nazioarteko Erakundeentzako eta haiekin lotutako pertsona juridikoentzako laguntzak, herrialde pobreetan Nazioarteko Erakunde horiek garatzen dituzten garapen-proiektuetan parte hartzen duten lankide boluntarioei beka emateko (NBE). % 0,5-2

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN III. GIDA PLANA 2014-2017 (VI.3) I	
2016AN BANA DAITEZKEEN FUNTSAK: 35.504.903,001 €	
TRESNAK: bakoitzerako urtean bana daitezkeen funtsen ehunekoa eta aurreikus daitezkeen kostuak	
4. ZUZENEKO LANKIDETZA	ZUZENEKO LANKIDETZARAKO HITZARMENAK - Alde biko eta alde anitzeko lankidetzaren antolatze hitzarmenak (ZUZ): % 6-10
5. SENTSIBILIZATZEKO ETA HEDATZEKO BESTE EKINTZA BATZUK	EUSKADIKO GAZTEAK LANKIDETZAN PROGRAMA - EGL % 0,2-0,7 IGNACIO ELLACURÍA SARIA - Garapenerako Lankidetzaren <i>Ignacio Ellacuría</i> Saria (SAR)
LANKIDETZA TRESNA BAKOITZERAKO ZUZKIDURA EKONOMIKOA	
DEIALDIA / TRESNA	Esleitutako funtsak €-tan
Finantziario-ildo iraunkorreko ekintza humanitarioa (PRE) 2016	1.200.000,00
Esparru-estrategien ildoko ekintza humanitarioa (EHE) 2016	2.000.000,00
Garapenerako lankidetzaren eta hezkuntzarako proiektuak (PRO/K1, PRO/K2 eta PRO/K3) 2016	30.000.000,00
Euskal lankidetzarako laguntzak (KOP)2016	150.000,00
Nazio Batuen sistemaren Nazioarteko Erakundeentzako eta haiekin lotutako pertsona juridikoentzako laguntzen luzapenak, herrialde pobreetan Nazioarteko Erakunde horiek garatzen dituzten garapen-proiektuetan parte hartzen duten lankide boluntarioei beka emateko (NBE) 2015.	240.000,00
Nazio Batuen sistemaren Nazioarteko Erakundeentzako eta haiekin lotutako pertsona juridikoentzako laguntzak, herrialde pobreetan Nazioarteko Erakunde horiek garatzen dituzten garapen-proiektuetan parte hartzen duten lankide boluntarioei beka emateko (NBE) 2016	300.000,00
Zuzeneko lankidetzarako hitzarmenak (ZUZ) 2016	1.449.403,00
Euskadiko Gazteak Lankidetzan programa (EGL) 2016	150.000,00
Ignacio Ellacuría Saria (SAR) 2016	15.500,00
GUZTIZKOA	35.504.903,00